

Hizkuntzaren nahasteak eskizofrenian: ehun urteko ikerlanak*

*Language disorders in schizophrenia:
One hundred year of study*

PATRICIA INSUA ETA PELLO HUIZI

Oinarrizko Prozesu Psikologikoak Saila. Psikologia Fakultatea (UPV/EHU)

JORGE GRIJALVO

Osakidetza

LABURPENA. Pentsamendu eta hizkuntza eskizofrenikoaren izaerari buruzko ikerketa teoria kliniko psikogeno eta deskribatzaileetatik abiatu eta neurtzeko sistema fidagarri eta operazionalan garatu da. Lehenik eta behin, artikulua honek berrikusten ditu, batetik, hasierako hurbiltzeak, baieztatzen zutenak eskizofrenia zuten pertsonen pentsamendua “paralogikoa” zela eta haien diskurtsoa haur-antzekoa eta, sarritan, ulertezina zela; eta, bestetik, “hitzezko portaerari” buruzko ikerketak, konduktismoaren nagusitasunean garatuak eta, ondoren, paradigma kognitiboak gogor kritikatuak. Ondoren, artikulua sakon aztertzen du xx. mendearen bigarren erdian egindako ikerketa psikolinguistikoa, batez ere komunikazioari buruzkoa. Ikerketa horrek defizitak erakutsi zituen diskurtsoaren maila desberdinetan, baina bereziki prozesatze-maila “altuetan”. Azkenik, azterketa berrienak berrikusten ditugu. Horien arabera, eskizofrenia duten pertsonen hizketak gutxienez hiru kausa-faktorerekin du zerikusia: a) arreta jartzeko ezintasunarekin, b) funtzio betearazlearen hutsegitearekin, eta c) transmititzen diren oroitzapenetara ausaz sartzea, nahiz eta testuinguruarekin bat ez etorri. Ondorioztatzen dugu bi gauza egin behar direla etorkizunean: berariazko atazak diseinatzea patologia honetako prozesatzearen lehen etapak ikertzeko (prozesu “linguistiko” hutsek eskizofrenia duten pertsonen hizkuntzan eta pentsamenduan duten zeregina azaltzeko), eta hizketa natu-

* [Lan honen lehenagoko bertsioa hemen argitaratu zen, 2002an: *Gogoa* II (2): 43-67.]

Lan hau EHUko Ikerketarako Errektoreordetzaren laguntza hauei esker egin da: UPV227.231-HA041/98 eta UPV227.231-HA060/99. Eskerrik asko GOGOAKo bi txostengile anonimoei.

Nola aipatu / How to cite: Insua, Patricia; Huizi, Pello; Grijalvo, Jorge (2024). “Hizkuntzaren nahasteak eskizofrenian: ehun urteko ikerlanak”, *Gogoa*, 24, 7-31. (<https://doi.org/10.1387/gogoa.26054>).

ISSN 1577-9424 - eISSN 2444-3573 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons* Aitortu 4.0 Nazioartekoaren lizentziapean dago

ralaren ekoizpenaren ereduak hobetzea, hizkuntza sortzeko lehen etapetan egindako prozesuak hobeto azaltzeko.

GAKO-HITZAK: eskizofrenia; hizkuntza; pentsamendua; komunikazioa.

ABSTRACT. *The research on the nature of schizophrenic thought and language has developed from clinical psychogenic and descriptive theories into reliable and operational measurement systems. To start with, this article reviews early approaches which maintained that the thought of people with schizophrenia was “paralogical” and that their speech was childish and often unintelligible, and the studies on “verbal behavior”, developed during the supremacy of behaviorism and strongly criticized later by the cognitive paradigm. Next, the paper examines thoroughly the psycholinguistic research carried out in the second half of the 20th century, specially the one on communication. This research revealed deficits at different levels of the speech, but particularly at the “high” levels of processing. Finally, we review the most recent studies, according to which speech of people with schizophrenia is related to at least three causal factors: a) inability to focus the attention, b) failure in the executive function, and c) random access to memories that are conveyed although they do not fit in with the context. We come to the conclusion that two things must be done in the future: to design tasks specific to investigate the early stages of the processing in this pathology (in order to explain the role played by the purely “linguistic” processes in the language and the thought of people with schizophrenia), as well as to improve the models of natural speech production in order to give a better account of the processes carried out in the early stages of language production.*

KEYWORDS: *schizophrenia; language; thought; communication.*

1. Sarrera

“Eskizofrenia” eta “dementzia goiztiarra” terminoak xx. mendearen hasieratik datoz; lehenengoa Bleulerrek (1960 [1911]) aurkeztu zuen eta bigarrena Kraepelinek (1971 [1919]). Orduz geroztik egin diren ikerketa guztietatik ondorio hau atera da: eritasun horren etiologia, sintomak eta pronostikoa alde askokoak dira. “Eskizofrenia” hitza, neurri batean behinik behin, hizketan gertatzen diren hutsegiteak deskribatzeko sortu zuen Bleulerrek. Bere lanetan esaten digunez, eskizofreniak jota zegoen gaixo bati entzutean, koherentziarik gabe hitz egiten zuen norbaiten aurrean zegoela iruditzen omen zitzaion eta txunditurik gelditzen omen zen gaixoak esaten zuenari ezin antzeman. Bleulerren ustez, bestalde, “pentsamenduaren nahastea” zen eskizofreniaren sintoma nagusia eta nahaste horren epifenomeno argiena gaixoen hizketetan ageri ziren aldaketak ziren. Nahaste horrek funtzio psikikoen arteko lotura eten egin zela adierazten zuen (eskizofrenia hitzaren lehen zatia, “eskizo-” alegia, “zatitu” esan nahi duen grekozko *skhizo* aditzetik dator). Pentsamendua eta hizkuntza bi konstruktuz ezberdintzat zeuzkan Bleulerrek; haren ondoko autore gehienek, ordea, kognizioaren zuzeneko eta bitartekorik gabeko isla bezala ulertu zuten hizkuntza. Ordu ezker, hainbat eta hainbat hamarkadatan autore askoren ikergai nagusia hizkuntzaren aldaketa edo nahasteak izan dira, aldaketa horiek, haien ustez, “pentsamenduaren nahaste formalak” islatuko bailukete.

Lan honetan, eskizofrenian hizkuntzak erakusten dituen aldaketak aztertzeko egin diren ikerketa ildoen berri eman nahi dugu, gai horri dagokionez azkeneko mendean zer egin den azaltzeko asmoz. Berrikusiko ditugun lanen artean, alde batetik ikerketa klinikoak daude, uste honetan oinarritzen direnak, hots, hizkuntza pentsamenduaren garraibidea dela eta pentsamenduaz ondorioak ateratzeko ez dagoela hizkuntza beste biderik; baina, bestetik, honako hau defendatzen dutenak daude: pentsamendua eta hizkuntza bereiz aztertu behar direla eta hizkuntza ez dela erabili behar pentsamenduaz inferentziak egiteko.

Psikologia kognitibo esperimentalak sortu zenetik, eskizofreniak jota daudenen hizkuntza eta pentsamenduari buruzko hipotesiak egiaztatzeko, hizkuntzalari eta psikolinguistek pentsamendu eta hizkuntza normalaren ikerkuntzarako asmatu zituzten metodo eta eredu teorikoak erabiltzen dira. Autore gehienek ustez, eritasun larri hau azaltzeko giltza, subjektuarengan iraunkorrak diren eta agian eritasuna hasi baino lehenago nabaritzetik izango liratekeen “zantzu”, “seinale” edo funtzionatzeko moduen azterketan bilatu behar da bereziki (ezaugarrien ikuspegia), psikosi-aldian bakarrik nabaritutako liratekeen “sintoma klinikoetan” baino gehiago (egoeraren ikuspegia). Are gehiago, kontuan hartzen badugu sintomak subjektiboak direla eta, beraz, fidagarritasun gutxikoak. Ezaugarriek, aldiz, fidagarritasun eta objektibotasun handia dute (Alpert 1985, Frith 1992, Cantor-Graae eta beste 1995, Condray eta beste 1995, Crow eta beste 1995, Docherty eta beste 1994, Lieberman 1995, Moya 1998).

Horrela, bada, eskizofrenian pentsamenduari eta hizkuntzari gertatzen zaienaren ikerkuntzak aurrerapen handiak egin ditu xx. mendearen lehen erdiko teoria psikogeniko eta deskribatzaile klinikoak utzi eta pentsamendua eta hizkuntza neurtzeko sistema objektibo eta fidagarriak sartu diren heinean, azken hauek operazionalizatzeko eta seinale aitzindari gisa erabiltzeko aukera ematen baitute.

2. Nahastua zer, pentsamendua ala hizkuntza?

Bada aspalditik datorren eztabaida bat: “hizkuntza eskizofreniko” izendatu diren fenomenoak ea benetan “pentsamendu eskizofrenikoaren” sintoma ote diren. Eskizofreniadunen hizkuntzaren ikerkuntzan eta teorian bi auzi hauek izan dira nagusi: lehenengoa, ea badagoen pentsamendu eta/edo hizkuntza eskizofrenikorik, eta bigarrena, zein lotura dagoen pentsamendua-ren nahastearen eta hizkuntzaren nahastearen artean.

Gehienetan, eskizofreniak jotako gaixoen hizketan ageri diren aldakuntzak eta “pentsamenduaren nahaste formala” delakoa berdintzat jotzeko joera egon da. Hala, “hizkera ulertezina”, “eduki urriko hizketa”, “neologismoak”, “bidea galdutako ideiak hizketan” eta gisa horretako hizkuntza-

ren aldakuntzak erabili nahi izan dira ondorio hau ateratzeko: subjektuaren pentsamenduak nahaste formal bat aurkezten duela. Definizio horiek, ordea, berez bestelako nahaste batzuei dagozkie, hitzezko diskurtsoak egituratzeko moduarekin zerikusia duten nahasteei hain zuzen. Pentsamenduaren nahastea neurtzeko eskala fidagarriak sortu eta gero ere, badira oraindik, pentsamendua nahasia dagoen ala ez ondorioztatzeko, hitzezko probak erabiltzen dituztenak, edo hizkuntza testuinguru klinikoetan behatzen dutenak.

Ez gara, hemen, pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko isomorfitasmoari buruzko polemikan sartuko: zalantzan jarria dute hori dagoeneko Pick (1973 [1913]), Andreasen (1979) eta Chaikak (1990), beste askoren artean. Dena dela, bada gauza bat dirudenez argi dagoena: eskizofreniak jotakoengan batzuetan huts egiten duten hitz egiteko mekanismoak zehazteko, hizketa-lagin asko era sistematikoan behatu eta ongi aztertu beharra dago, baina, horrezaz gainera, hizkuntza produzitzeari buruzko eredu teorikoak ere erabili behar dira. Eredu horiek hiztun normalak hizketa egituratu eta produzitzeko gauzatzen dituen prozesuak zehaztu behar dituzte, baita bide eman ere hiztun normalaren eta hiztun eskizofrenikoaren performantziak elkarrekin erkatzeko.

Belinchónen (1987, 1991) arabera, eskizofreniadunen hizkuntza- eta komunikazio-nahasteen ikerkuntzan joera oker larriak sartu ditu uste izanak hitzezko diskurtsoen antolaketa orokorrean parte hartzen duten prozesuak ez direla *per se* “prozesu psikolinguistikoak”, “pentsamendu-prozesuak” baizik. Esate baterako, eskizofreniadunek hizketan aurkezten dituzten aldakuntzek defizit edo urritasun kognitibo orokorrak islatzen dituztela onartu ondoren, aldakuntza horiek hizkuntzaren beraren arlokoa den ezgaitasunen baten adierazle ere izan daitezkeela ukatzea da joera oker horietako bat. Hizkuntza eta kognizioa elkarri eragiten dioten prozesuak dira eta gogamen gestalt bat osatzen dute; horregatik, beharrezkoa litzateke modu enpirikoan zehaztea nola ari den horietako bakoitza eta zein den horien arteko harreman dinamikoa. Baliteke galdera horrentzat gogobeteko erantzunik ez egotea; hala ere, teoriarik behintzat, hizkuntzaren eta kognizioaren arteko harremana harreman dialektiko eta funtzional gisa ulertu nahiko lukeena izango litzateke erreferentzi markorik baliagarriena (Rieber eta Vetter 1994, 1995). Dena dela, arazo bihurri horri egokiro erantzuterik ez dagoen bitartean, gure aztergaia ikertu eta esplikatzeko komenigarria da, eta are beharrezkoa, pentsamendua eta hizkuntza bakoitza bereiz hartuta estudiantzea, zein bere egiteko esperimental bereziekin.

3. Eskizofreniadunen pentsamendu- eta hizkuntza-nahasteen teoria psikogeniko eta deskribatzaileak

Arietik (1955) bi modu seinatzen ditu eskizofrenia duen subjektuaren hizkuntza aztertzeko: bata dinamikoa, formala bestea. Azterbide dinamikoak

hizkuntzari batez ere motibaziozkoa den ikuspuntutik begiratzen dio (adibidez, eskizofrenia duen pertsonak bere hizketa aldatzen duenean, zerbaitengatik izango da: pertsona arteko harremanak mehatxagarriak iruditzen zaizkiolako eta bere burua mehatxu horien kontra defendatu nahi duelako segur aski). Gizabanakoaren garapenean oso goiz hasiko litzatekeen kausa eta ondorio psikogenikoen kate batek eusten dio motibazio horri. Arietiren iritzian, eskizofrenia duen pertsona, gizartetik bereiziz, hersturatik ateratzen da eta, horrela, seguru sentitzen da. Onartua sentitzen ez den gizartean, berak bere banakotasuna eta bere hizkuntza propioa sortzen du. Bakarra izateko ahalegin horretan, pentsamenduak eta sentimenduak adierazteko modu arkaikoak erabiltzen ditu, giza bilakaeran aspaldi bazterturik gelditu zirenak. Autore horren arabera, eskizofreniadunak bere inguruko hitz eta sinboloak erabiltzen ditu, baina bere prozesu psikologiko arkaikoen arabera birmoldatuta. Arietik dioenez, eskizofrenian agertzen den hizkuntzaren patologia hiru ezaugarri nagusi ditu: a) abstrakziorako gaitasunaren narriadura edo hondatzea, b) sinbolizatze gaitasunaren narriadura, eta c) gizarteratu edo gizartean integratzeko gaitasunaren narriadura. Ezaugarri horiek batera agertzen dira eta fenomeno beraren agertzeko era desberdinak dira segur aski. Sinbolizatze gaitasunari dagokionez, lau kategoria seinalatzen ditu, duten konplexutasunaren arabera antolatuak, konplexutasuna gero eta handiagoa delarik: a) ikurak (gauza batzuen presentzia), b) irudiak (ikusmenezkoak, entzumenezkoak eta abar), kanpoko gauzen pertzepzioak edo gauzak berak, c) paleosinboloak (gaixoak berak sortzen dituen sinboloak, sinbolizatu nahi dituen gauzak irudikatze horien parte bat edo predikatu bat aukeratuz), eta d) sinbolo sozial edo komunak (gizartean onartuak diren paleosinboloak, edozeinengan eragin bera dutenak). Arietiren arabera, eskizofrenia duen pertsona sinbolo komunak utzi, eta ikur, irudi eta paleosinboloetara itzuliko litzateke. Sinbolo sozialak erabiltzeko gaitasuna galtzean, bere burua gizartetik urrundu egiten du eta, ondorioz, bakartasunean bizi da. Zenbat eta gehiago aldentzen den gizartetik, orduan eta ulergaitzagoa da haren hizkuntza; “nahaste-borraste” bat dira haren hitzak, eta ez dute loturarik elkarrekin (Arieti 1955).

Von Domarusek (1944) pentsamendua azpimarratzen du. Berak dioenez, pertsona normalak, pertsona logikoak alegia, berdintasuna onartzen du subjektuak berdinak direnean, eta orduan bakarrik; pertsona eskizofrenikoak, aldiz, paralogikoa izaki, berdintasuna onartzen du predikatuak berdinak direnean. Von Domarusek silogismo bat jartzen du adibide gisa pertsona normalaren eta eskizofrenia duenaren arrazoitzeko moduen artean zein alde dagoen erakusteko. Normala denak dedukzioaren arauen arabera arrazoituko luke: “Sokrates gizakia da. Gizaki guztiak hilkorak dira. Beraz, Sokrates hilkorra da”. Eskizofrenia duenaren arrazoibidea, aldiz, honelakoa izango litzateke: “Sokrates gizakia da. Ni gizakia naiz. Beraz, ni Sokrates naiz”. Von Domarusen iritzia da, eskizofrenikoaren logikaren legeak eta pertsona primitiboek eta are goi mailako animaliek erabiltzen dituztenak berdinak direla.

Sinboloa berak ordezkutzen duenarekin berdintzea eta zatia eta osoa nahastea, eskizofrenia dutenengan ikusten diren gauzak, Von Domarusen planteamendua aplikatuz interpreta daitezkeela uste du Arietik (1955).

Arieti eta von Domarusen ikuskerei kritika ugari egin zaizkie. Maherrek (1966) badu esatekorik von Domarusek pentsamenduari buruz daukan ideia-aren kontra, baita horren formulazioetan Arietik (1955) egiten dituen aldaketen kontra ere. Aurrenik —eta horretan bat dator gaur egungo Pentsamenduaren Psikologiaren arloko lanekin (ikus, adibidez, Johnson-Laird 1983, 1993; Johnson-Laird eta Byrne 1991)—, ez du onartzen logikako erregela formalak jende normalak eguneroko egoeretan duen arrazoitzeko moduaren adierazgarri direnik. Bigarrenik, “paralogiko” hitzaren ordezkari “paleologiko” hitza sartzean, Arietik hitzari von Domarusek ematen ez zion konnotazio bat eransten omen dio. Teorizazio mota horren azpiko suposizioak nekez justifika daitezke Maherren iritziz; izan ere, autore honen arabera, paleologikaren adibideak azaltzeko bada orokortze hutsean oinarritzen dena baino modu erraz eta sinpleagorik. Maherrek gauzak honela ikusten ditu: arrazoibide paleologikoak eskizofrenikoaren jokabidean dituen ondorioak estimuluen orokortze gehiegizkoak izango lituzkeenak berak dira. Estimuluen orokortzea gehiegi hedatzen denean, estimulu egoera jakin batentzat egokia izango litzatekeen jokabidea egoera horrekin ia batere antzik ez duen estimulu batek eragiten du, egoera normalean gertatuko ez litzatekeena. Orokortze hori patologikoa da, pertsona normal batengan gertatzeko txikiegia izango litzatekeen antzekotasun mailak eragina delako. Gauza horrela ikusita, arrazoibide paleologikoaren arazoa ez da berdintasunak antzeko predikatua oinarri hartuz ezartzen direla, baizik gaixoak berdintasuna predikatuen arteko antzekotasun oso mugatuetan oinarritzen duela. Maherrek honako hau gaineratzen du: hitzeko adimena kontrolatu eta emoziozko estimulu eragingarria saihesten denean, eskizofrenia duten pertsona ospitaleratuen eta pertsona normalen emaitzak antzekoak direla arrazoibide logikoa neurtzen duten probetan (Maher 1966).

Zenbait autoreren arabera, eskizofreniadunen hizketa ulergaitza da eta askotan ulertezina: hizkuntza anbigua erabiltzen dute, barriatua edo orokortua izateko joera duena (Gottschalk eta beste 1961). Beste batzuek (Brown 1973), aldiz, ez dute inolako “hizkera eskizofrenikorik” onartzen eta, horren ordezkari, “pentsamendu eskizofrenikoaz” hitz egin beharko litzatekeela diote. “Hizkera eskizofrenikoa” aipatzen denean, hizkera atzeratua, haurrenaren antzekoa eta prosodia oso berezia duena adierazi nahi izaten dela dio Brownek. Haurrenaren antzeko hizkera horrek eskolaurreko umeen hizkeraren ezaugarri batzuk izango lituzke, hala nola: esaldi laburrak egitea eta funtzio-morfemak (pertsona- eta numero-inflexioak, artikulua, preposizioak eta abar) ez erabiltzea. Haur sentsomotorren bereizgarri den hizkera izango litzateke, hortaz; emoziorik eta pertsona-harremanik gabeko hizkera. Baina hizkera hori ez litzateke inola ere izango eskizofreniaren bereizgarri tipikoa.

Bestalde, psikoanalisten artean oso hedatua egon den eskizofrenia erre-
gresio psikosia delako ideia baztertu egiten dute joera behavioristako psi-
kopatologoen. Maherrek (1966) dioenez, haurren jokabidearen eta jokabide
eskizofrenikoaren artean azaleko antzekotasuna aurkitzeak ez du laguntzen
jokabide psikotikoa ulertzen; bestalde, hizkuntzari dagokionez ez da frogatu
“erregresio psikosirik” dagoenik, eta kontzeptu horren baliagarritasuna bera
ere zalantzan jar daiteke.

4. Eskizofreniak jota daudenen “hitzezko jokabidea”: XX. mendearen aurreneko erdia

Paradigma behaviorista XX. mendearen aurreneko erdian Amerikako Es-
tatu Batuetan nagusi izateak pentsamenduari buruzko ikerketen erabateko
baztertua ekarri zuen, ezin baitzen aztertu paradigma horrek eskatzen zi-
tuen metodo objektibo eta esperimentalen bidez. 1900etik 1950era bitar-
teko urteetan ez zen ia psikolinguistikarik izan Amerikako Estatu Batuetan.
XIX. mendearen azken aldera hizkuntza naturaleko prozesuetan interes han-
dia jarri bazuten ere, handik urte batzuetara arreta eta ardura guztia baldin-
tzapenaren esparrura mugatu zuten. Hizkuntzari buruzko lan bakanek “hi-
tzezko jokabidea” zuten aztergai eta bai metodoak eta bai kontzeptuak ere
laborategian animaliak erabiliz lan egiten zutenengandik hartzen zituzten;
hartu, giza jokabidea aztertzeko beharrezkoa zen egokitze lana eginez, hala
ere. Garai haietako araua, edo arau modukoa, zen hizkuntza beste edozein
jokabide bezala aztertu behar zela. Horrez gainera, autore haiek hizkuntza
normalaz arduratzen ziren soil-soilik, eta ez zuten inolako interesik eskizo-
frenia eta gainerako psikopatologia taldeetako hizkuntzaren gorabeheretan.
Hizkuntzalariek, bestalde, Bloomfieldi (1933) jarraituz, hizkuntzari ikuspegi
taxonomiko eta antimentalista batetik begiratu zioten, eta bai Amerikako Es-
tatu Batuetan, bai Europan, psikologoen eta hizkuntzalariek alde batera utzi
zituzten hizkuntza naturala ekoizteari eta ulertzeari buruzko ikerketak; haien
egiteko nagusia hizketa jokabideak segmentutan banatzea eta sailkatzea izan
zen. Hizkuntzaren eta psikopatologiaren arteko loturak aztertzeko klinikoan
esku gelditu zen, multzo psikopatologikoen nortasun, kausa eta abarren es-
tudioarekin batera. Hizkuntza, horientzat, epifenomeno bat zen, segur aski
funtsezkoagoak ziren beste prozesu horiek ulertzeko erabiltzen zutena.

Cameronentzat (1938a, 1938b, 1944), eskizofrenia dutenen hizkuntza-
ren ezaugarri bereizgarria antolaketa galtzea da. Egokia denaren orde horre-
kin zerikusia duen beste hitz edo esaldi bat erabiltzea haien ezaugarrietako
bat da. Pentsamendu eskizofrenikoak egitura galtzean, horren ondorioa kon-
traesanekoak izan daitezkeen elementuak elkarrekin jartzea izango litzateke.
Cameronen arabera, eskizofreniadunak ezin ditu bereizi eta kendu hitz de-
segokiak. Ez lirateke jende normala bezain trebeak izango kontzeptuen ar-
teko mugak gordetzeko eta, horregatik, hitzen esanahian gauza gehiegi sar-

tzera joko lukete. Ikuspegi honek hainbat ikerketa eragin zituen, egiteko gisa lexiko-aukeraketa eta hitz anbiguenen interpretazioa erabiltzen zituztenak eta helburua hitzen esanahiak interpretatzeko gaixoen gaitasuna egiaztatzea zutenak (Chapman 1960, Chapman eta beste 1964, Chapman eta Chapman 1973). Ikerketa hauek frogatu zuten pertsona eskizofrenikoek erantzun asoziatibo primarioak aukeratzeko joera dutela, hitzen testuingurua kontuan hartu gabe. Autoreen ustez, aurkikuntza horrek arretaren iragazte mekanismoen defizita adierazten zuen eta, horren ondorioz, esanahi egokiak eta desegokiak bereizteko gaitasunik eza. Hala ere, beste lan batzuek (Miller 1984) erakutsi dutenez, itemen anbiguotasun lexikoaren maila egokiro kontrolatzen bada, pertsona eskizofrenikoengan ez da lehentasunezko hutsegite gehiagorik aurkitzen (lehentasuna esanahi primarioari ematean datzan hutsegite gehiagorik esan nahi da) kontrol subjektuengan baino. Beraz, eskizofrenian hitzen esanahiari eta hitzak ezagutzeari erasaten dieten nahasteak gertatzen direlako hipotesia eta hizkuntza ulertzeko zailtasunen arrazoa nahaste horiek direlako ez daude behar adina berretsirik.

Paradigma kognitiboa agertzean, “hitzezko jokabideaz” ari ziren ikerlanak kritikatuak izan ziren; batetik, hizkuntza naturalaren prozesuekin zerkusi handiegirik ez zuten trebetasunak aztertzen zituztelako (testuingurutik kanpoko hitzak erabiltzen baitzituzten) eta, bestetik, aurkikuntza esperimentalak esplikatzen zituzten informazioaren prozesaketako konstruktuek erabat bazterten zituztelako. Psikolinguistika garatzean, eskizofrenia duenaren hizketan nabari diren aldaketak “esperimentu natural” baliagarritzat jotzen hasi ziren eredu psikolinguistikoak egiaztatzeke. Eta psikologia esperimentalak hizkuntza normala aztertzeko metodo eta parametro berriak sortu ahala, posible egiten da hizkuntza patologikoa azaltzeko datuak biltzen eta hipotesiak lantzen hastea. Ikuspegi honetan, funtzio psikologiko eta jokabide mota bat den aldetik, hizkuntza jokabide orok, izan dadin edo normala edo desbideratua, hiru analisi mota hauek eskatuko ditu: analisi semantikoa, analisi estrukturala eta analisi funtzionala. Bestela esateko, hizkuntza ulertu eta azaldu nahi bada, beharrezkoa da hiru osagai hauek batera kontuan hartzea: 1) *osagai semantikoa*, edo ideiena, Bleulerren analisiaren erdigunea; 2) *osagai formal*, hizkuntza oro, definizioz, arbitrarioak diren ikur eta erregela batzuen sistema baita, ikasteko eta erabiltzeko orduan baldintza bereziak jartzen dituztenak, eta 3) *osagai funtzionala*, komunikazio funtzioari dagokiona (pragmatikoa), komunikazio-egoera jakin batean hiztunak eta entzuleak hura nola erabiltzen duten aztertzen duena (Belinchón eta beste 1992).

5. Hizkuntza eskizofrenikoaren ikerketa psikolinguistikoak: XX. mendearen bigarren erdia

Aurreko atalean aurkeztu dugun ikuspegi-aldaketak lan esperimental sail handi bat eragin zuen 60ko hamarkadatik aurrera. Lan horiek, iritzi klini-

koen orde, zuzenean eredu psikolinguistikoetatik ateratzen diren neurketatresnak erabiltzen dituzte: gorago esan denez, “zantzu” edo seinaleak erabiltzen dituzte, eta ez “sintoma” bakarrik, nahastearen ikerkuntza zientifikoa (Alpert 1985, Grijalvo 1991, Lieberman 1995).

Hizkuntza eskizofrenikoaren ikerkuntzan badago bi esperimentu mota bereizterik: “hitzezko jokabidea” aztertzen duten esperimentuak, batetik, eta esperimentu “psikolinguistikoak”, bestetik. Biek hitzezko egitekoak erabiltzen dituzte, baina ez gauza bera aztertzeko. Aurrenekoek informazioaren prozesaketa estudiatzeko erabiltzen dituzte; bigarrenak, aldiz, hizkuntzaren prozesaketa aztertzeko. Aurrenekoek hitzak erabiltzen dituzte estimulu gisa, hitzak bakoizka hartuta; bigarrenak, aldiz, perpaus eta esaldiekin lan egiten dute. Bereizkuntza hori dela eta, zenbait autoreren iritzia da, Miller eta Isardek (1963) parte-hartzaile edo subjektu normalak erabiliz egindako lanaren erreplika egiteko Gerverren (1967) saioa dela parte-hartzaileak eskizofrenikoak diren ikerketen hasiera (Rochester 1980). Gerverren lanak gauza bat frogatu zuen: eskizofrenia dutenak, perpausak gogoratzeko egitekoa jartzen zaienean, gai direla onura ateratzeko perpausen egitura sintaktiko eta semantikoetik. Era horretan, pertsona eskizofrenikoak hizkuntzari datxekion antolaketatik etekina ateratzeko ezgai direla iradokitzen zuten emaitzak gezurturik gelditu ziren. Bestalde, ikertzaile asko konbentzitu zituen, hizkuntzari buruzko lanetan beharrezkoa zela hitzak bakarka hartzen zituztenetatik harago joatea eta sintagmak, perpausak eta are testu eta diskurtsoak kontuan hartzea. McGhieren (1970) arabera, gaixo hauek hizkuntza kontuan dituzten zailtasunak ez datoz diskurtsoa osatzen duten banakako hitzak ulertzeko ezintasunetik; zailtasunen iturburua beste hau da: gauza ez izatea, hitzek osotasun antolatatu baten zati diren aldetik beren artean dituzten esanahizko harremanez jabetzeko.

1975etik aurrera, nabaria da zenbait autorek “eskizoafasia” ikertzeko agertzen duten interesa. Eskizoafasia hizkuntza-jokabide desbideratutzat daukate eta eskizofrenikotzat jotzen diren gaixo batzuegan aurki daiteke (Lecours eta Vanier-Clement 1976). Izen hori eta zenbait hizkuntzalari eta afasiologoren lanak gaixo eskizofrenikoen hizkuntzaren erabilera desbideratuaren ezaugarriak modu objektiboan azaltzeko ahaleginaren isla dira. Chaikak (1974) lan bat argitara eman zuen gaixo batez, emakumea bera, zeinaren hizkera normala baitzen gaixoaldi akutuetan izan ezik; orduan, bere buruarekin hitz egiten zuen, eta bere buruarentzat bakarrik, eta ez zuen inola ere onartzen beste inork hizketa hori moztea. Chaikak, bere ikerketetan oinarrituta, ezaugarri hauek bereizi zituen hizkuntza eskizofrenikoan: neologismoak, mordoilokeriak (*gibberish*), hitzen esanahi nagusia erabiltzeko joera testuingurua kontuan hartu gabe, gai jakin batekin zerikusirik ez duten asoziazio-kateak erabiltzea (*glossomania*), hizketa-gaiari egokitzen ez zaizkion errima eta aliterazioak, hitz nahiz morfema desegokiei tinko eustea (pertseberazioa), sintaxi-erregelak erabiltzeko gaitasunaren nahaste larria eta nor-

bere burua kontrolatu ezina (esate baterako, egiten dituen hutsez konturatzeko ezintasuna). Geroago, ezaugarri horiek funtsezko hiru disfuntzio hauetara bildu nahi izan ditu: pertseberaziorako joera, ekoizte prozesuan hizkuntza-unitateak aukeratzeko lana kontrolatu ezina eta lexikoaren arloko erabakiak hizketa-gaiak ezartzen dituen eskakizun estruktural eta komunikatiboen mendean jartzeko ezintasuna (Chaika 1981, 1982). Arazo horiek, aipatu autorearentzat, hizkuntza mailako desbiderapenak dira funtsean eta hizkuntzaren egitura-antolaketaren hainbat mailari erasaten diete: lexikoari, sintaxiari eta testu osoaren mailari, adibidez. Baliteke, hala dio berak, iker-tzaileek “eskizofrenikotzat” jotzen duten hizketa aldizkako afasiaren ondorio izatea. Hizketa eskizofrenikoa aldizkako afasiaren ondorio izan daitekeelako Chaikaren ideia hori oso kontuan hartua izan zen literaturan. Kontrako jarrerak agertu ziren, hala ere, horren interpretazioari dagokionez: batzuk Chaikaren alde jarri ziren (Benson 1973, Gerson eta beste 1977, Lecours eta Vanier-Clement 1976); beste batzuek, aldiz, uste dute Chaikak deskribatutako jokabideek, ez “hizkera eskizofrenikoa”, baizik “pentsamendu eskizofrenikoa” adierazten dutela (Brown 1973, Fromkin 1975).

6. Komunikazio eskizofrenikoari buruzko ikerlanak

Hizkuntzaren eta pentsamenduaren artean bada funtsezko alde bat Frithek (1992) seinalatu duena eta eskizofreniaz ari diren ikerketek arreta handiegirik eskaini ez diotena. Pentsatzea jarduera pribatua da; hizkuntza, berriz, elkarrekin komunikatzeko dugun adierazpide nagusia da segur aski. Hala, bada, hizkuntza ez da pentsamendua adierazteko modu bat bakarrik, pentsamendua beste batzuei komunikatzeko asmatua izan den modu bat baizik. Giza hizketa, gehienetan, kideen arteko hizkuntza-harremanetan gertatzen da, komunikazio giroan alegia; horregatik, hizketa komunikazio-tes-tuingurutik ateratzen bada, interpretazio oso eztabaidagarriak egin daitezke hizketa eskizofrenikoaren gainean (Rochester 1980; Rieber eta Vetter 1994, 1995).

Rochester eta Martinek (1979; Rochester 1980), Chaika (1974) eta Lecours eta Vanier-Clementen (1976) lan deskribatzaileak berrikusi ondoren, oinarritzko bi oharpen egiten dituzte: a) eskizofreniko guztiak ez direla eskizoafasiko, eta b) eskizoafasiko guztiak ez direla eskizoafasiko beti. Rochester eta Martinen ustez, eskizoafasia aldizkakoa da, episodikoa, eta ikerketaren egitekoa da aldi horiek noiz gertatzen diren eta zein ezaugarri dituzten azaltzea. Galdera horiek kontuan hartuz antolatutako ikerketa batean honako aurkikuntza hauek egin zituzten: a) gaixo eskizofrenikoek hizkuntzaren erabileran arazoak zituztela, bai, baina ez zegoela beste ikerketa batzuek iradokitzen zuten agramatismo larriaren aldeko frogarik, eta b) pentsamendu-nahasteak dituzten hiztunen eta gainerako hiztunen arteko bereizketa hizkuntzaren erabilera-maila oso garatuan egin daitekeela, eta ez termino

hauek adierazten dituzten mailetan: “hitz nahaste-borrasteak”, “neologismoak”, “hizketaren blokeoak”. Bi hutsegite mota aurkitu zituzten, pentsamendu mailako nahasteak zituzten gaixoak horrelako nahasterik ez zutenengandik desberdintzen zituztenak: batetik, esanahi lexikoarekiko menpetasun handia klausula eta perpausen arteko kohesioa lortzeko, eta, bestetik, esaera eta hitzen ezaugarri prosodikoetan oinarritzeko joera, esaera horiek aurreko testuinguruarekin lotzeko. Aurkikuntza horiek aurreko emaitzak berresten zituzten, eta dirudienez badute zerikusirik pentsamenduaren nahasteak dituztenen hizketaren hirugarren ezaugarri honekin: entzuleari neke egiten zaiola hiztunaren hizketa ulertzea. Eta hori arrazoi honengatik gertatzen da: hiztunak, erreferenteak ilunak eta are ezin iritsizkoak diren erreferentzia inplizitu sail handi batean oinarritzeko joera duelako. Rochester eta Martin, aurkikuntza horiek interpretatzeko, “forizitate¹ sistemak” direlakoentzat Halliday eta Hassanek (1976) proposatutako eredu teorikoaz baliatzen dira. Sistema horiek, adierazten dena egituratzeko, honako hau hartzen dute oinarri: hiztunek uste dutena beren entzuleek dakitenari buruz. Era horretan, forizitate sistemak aztertzeak erreferentziari eta erreferentzia-prozesuei modu analitikoan hurbiltzeko bidea ematen du.

Idea horietan oinarritzen dira Rochester eta Martin (1979) honako hau esaten dutenean: alegia, hiztunak esaldietan dauden esanahiak hizkuntza-sistema kopuru jakin batean —adierazpen fonologiko/idatzietan, forma lexiko-gramatikaletan eta testuaren esanahi semantikoetan— aukerak eginez prozesatzen dituela. Gaitua dagoen hiztun heldua gauza da —hori ziurtzat jotzen da— hiru maila horietako bakoitzean erabaki egokiak hartu eta testu koherenteak sortzeko. Hala ere, hizkuntza prozesatzeko lanaren gaineko kontrola gutxitu egiten dioten zenbait faktore ari bazaizkio eragiten hiztunari, esaterako nekea, estresa edo herstura, orduan ezin izango du diskurtso koherente bat sortu, eta gauzak ordena honetan gertatuko dira:

- a) Aurrena, perpausak elkarrekin lotzerakoan huts egingo du; ez da ikusiko gaia nondik nora doan, gertakizunen haria ez da zuzen eramango eta esaldien arteko kohesio mota batzuk faltako dira.
- b) Hurrena, aurreko hutsegite horiei hizkuntzaren erabilerako maila lexiko-gramatikaleko hutsak gaineratuko zaizkie: neologismoak, egokiak ez diren gramatika-formak eta era desberdinetako hitz desegokiak; hala ere, hizketaren ezaugarri prosodikoak nahiko osorik egongo liriateke.
- c) Azkenik, erabateko etena gertatuko litzateke hizkuntzaren mekanismoetan: hiztuna ez da gai izango doinu edo intonazio ereduak paretatzeko, edo hoskide diren hitzak aukeratzeko, hori egiteko eskatzen zaionean.

¹ “Forizitate” hitza, *phoricity* ingelesez, *anafora* eta *katafora* hitzen bigarren zatian oinarrituz sortu zuten Halliday eta Hassanek.

Rochester eta Martinek *stratal slips* kontzeptua erabiltzen dute beren interpretazioa, hizketako hutsegiteak hizkuntzaren erabileraren hurrenez hurrengo maila edo geruzatan (*stratum*) gertatzen direlako, laburtzeko. Hutsegite horiek testuan nahiz testutik kanpo gerta daitezke. Testuan gertatzen direnean, lotura semantikoetan oinarritu ordez forma lexiko-gramatikaletan edo forma prosodikoetan oinarritzen da kohesioa; testutik kanpoan gertatzen direnean, aldiz, testu barneko loturak gutxitu eta testuaren eta hitzezko zein ez-hitzezko testuinguruaren arteko loturak gehitu egingo dira. Adierazgarria, Rochester eta Martinen (1979) analisisian, honako hau da: arreta ipinarazten dutela hizkuntzaren erabileraren kontrolari kalte egiten dioten prozesuetan. Autoreek aipatzen duten “prozesaketaren sakontasunak”, hizkuntza-funtzioekin ez ezik, jarduera kognitiboen eremu zabalago batekin ere badu zerikusirik. Hizkuntzaren prozesaketaz ari diren lanekin batera funtzionamendu kognitibo eta pertzepziozkoaren beste alderdi batzuk aztertzen dituzten lanak beharrezkoak direla diote; zeren, horrela, izango baita ikusterik ea hizketan nabari den koherentziarik eza beste eremu batzuetako funtzioen kaltearekin batera gertatzen den. Horregatik, hizkuntzaren ekoizpenean parte hartzen duten mailak bereizi eta berariazko ikerketen bidez aztertu beharra azpimarratzen dute.

7. Diskurtsoa eta hizkuntza prozesatzearen “goi”-mailak

Harveyk (1983) Rochester eta Martinen (1979) ikerketen erreplika egin eta zera aurkitu zuen: erreferentzian egiten ziren hutsegiteak pentsamenduari nahastearen irizpide klinikoak betetzen zituzten diskurtsoaren atalei zegozkiela. Horrek esan nahiko luke erreferentzia prozesuetan gertatzen diren hutsegiteek eragina dela pertsona eskizofrenikoengan pentsatze prozesuak hondatuta eta narriatuta daudelako ustea. Erreferentzian huts egitea eskizofrenikoen seme-alaben artean ere aurkitu izan da (Harvey eta beste 1982), baita hobealdian dauden gaixo eskizofreniko (Docherty eta beste 1988) eta eskizofreniadunen ahaide ez-eskizofrenikoengan (Docherty *et al.* 1988, Docherty *et al.* 1998, Docherty eta Gordinier 1999) ere. Horrek guztiak pentsaraz dezake balitekeela hizketaren nahasteek zerikusia izatea eskizofreniarantzko lerrakortasunarekin eta korrelazioan egotea hizkuntzaren nahastearen neurketa klinikoan arabera larritasunarekin. Datu horiek iradokitzen duten beste gauza bat da posible dela gaixo eskizofrenikoek narriatuta izatea beraiek eta beren entzuleek zer dakiten elkarrekin eta zer ez nabaritzeko gaitasuna. Zenbait ikertzailek (Anderson eta beste 1991, Glucksberg eta beste 1966) aurkitutakoaren arabera, haur txikiek joera dute beraiek bakarrik dakitena entzuleak ere jakingo balu bezala hitz egitera.

Psikolinguisten arabera, hizkuntza ekoiztea prozesu konplexua da, partez automatikoa eta partez kontrolatua, zeina irudikapen makroestrutural semantiko, pragmatiko eta testualak irudikapen mikroestrutural sintaktiko,

morfolexiko eta fonologiko bihurtzean baitatza (Belinchón 1991) eta independente samarrak diren modulu batzuen elkarrekintzaren mende baitago. Butterworthek (1985) horrelako sei sistema azaltzen ditu: fonetikoak, fonologikoak, prosodikoak, sintaktikoak, lexikoak eta semantikoak. Ikuspegi honen arabera, norbaiti zerbait, mezu bat, egoera jakin batean hitzen bidez adieraztea erabakitzen denetik mezu hori igortzen den arte prozesaketa lan konplexu sail bat dago eta hor era askotako trebetasunek parte hartu behar dute (Belinchón 1991): kontzeptuzko informazioa eta pragmatika orokorra (prozesaketaren “goi”-mailak), hizkuntzaren beraren arloko informazioa eta trebetasunak, hau da, trebetasun sintaktiko, morfolexiko eta fonologikoak (prozesaketaren “behe”-mailak) eta hitzak ebakitzeari dagozkion trebetasunak (arau fonartikulatorioak).

Ikerketa asko egin dira, gaixo eskizofrenikoak hizkuntza prozesatzeko maila horietan nola moldatzen diren aztertzeko. Ikerketa horietako askotan ez da hutsegiterik aurkitu prozesatze lanaren “behe”-mailetan. Andreasenek eta (1985) hizkuntzaren hiru alderdi ikertu zituzten: sintaxia (gramatika), semantika (esanahia) eta diskurtsoa (sintagmak eta perpausak nola lotzen diren). Ondorio hau atera zuten: eskizofrenia zutenen narriadura bereziak diskurtso mailakoak zirela, eta horakoak bakarrik; ideia sail bat edo istorio bat moldatzeko perpausak konbinatu behar diren modua zuzentzen duten erregelak daude narriatuta. Frith eta Allen (1988), lan horiek berrikusi ondoren, ondorio honetara iritsi ziren: ezagutza lexiko eta sintaktikoaren egiturak oso rik zeudela, baina diskurtsoaren egituraren mailarik goienetan huts egiten zela. McGrathen arabera (1991), pentsamenduaren nahaste formalaren ezau-garri funtsezkoa da ez egotea, ez plangintzarik, ez editatze betearazlerik ere.

Balegoke esaterik bat datozela denak puntu honetan: eskizofrenian hizkuntzaren prozesaketaren goi-mailak daudela narriatuta. Horrek, hala ere, ez luke esan nahiko beheagoko mailetan (lexikoan, sintaxian) hutsik egiten ez denik, baizik huts horiek, eskizofrenian, prozesaketaren “goi”-mailek jasaten duten kaltearen ondorioztat har daitezkeela. Hala ere, zenbait autoreren ustez gaur egun dauden frogak kontuan hartuta, ezin da baztertu pertsona eskizofrenikoek, aipatu dugun kontrol mekanismoetako defizitaz gainera, hitz-prozesaketaren osagai hizkuntzazkoago eta/edo automatikoetan ere defizitizitatea (Belinchón 1991). Hari honetara dio Belinchónek gauza frogatua dela eskizofrenia dutenek kontrol gisa erabilitako parte-hartzaileek baino perpaus laburragoak (Rochester eta Martin 1979) eta gramatikaren aldetik sinpleagoak (Morice eta Ingram 1982, Belinchón 1988) osatzen dituztela eta, hitz etorriaren arloko hutsegitei dagokienez (zalantzak, oker hastea eta errepi-katzeak), hutsegite horien banaketa desberdina dela eskizofreniak jota daudenengan eta kontrol-taldekoengan (Belinchón 1988). Belinchónen (1991) ustez, froga horiek bide ematen dute pentsatzeko kodetze morfosintaktikoko prozesuetako aldaketek eragiten dituztela plangintza makroestruturaleko defizitak.

Eskizofrenian eritasunak erasan, “goi”-mailei diela erasaten defendatzen dutenek, diskurtsoari eta plangintzari alegia, bi arazo interesgarri planteatzen dituzte: a) batetik, plangintzan gertatzen den hutsegiteak zerikusi handiagoa duela hizkuntzaren adierazte alderdiarekin hizkuntzaren ulertze alderdiarekin baino; eta, b) bestetik, diskurtso inkoherenteaz eta plangintzarik ezaz hitz egiten denean, entzulearen problema deskribatzen dela, hau da, entzuleak pertsona eskizofrenikoaren hizketa ulertzeko duen problema. Horrela, autore horiek diotenez, eskizofreniadunen hizkuntza-anormaltasunak ez dira *gaitasunaren* mailakoak, hizkuntzaren *erabileraren* mailakoak baizik. Subjektuak hizkuntza bestekin komunikatzeko erabili behar duenean sortzen dira arazoak eta arazo horiek hizketan ez ezik, ez-hitzezko beste komunikazio mota batzuetan ere eragina dute. Eri hauen hizketaren nahasteak esaten zaiena jasotzean baino gehiago zerbait adierazten dutenean agertzen direla eta testuinguruak hitzak ulertzeko ematen duen laguntza osorik dagoela erakusten duten froga esperimentalak badaude (Cohen 1976, Done eta Frith 1984).

Besteei geure ideiak eta nahiak komunikatzeko prozesuez ari garenean, hizkuntzaren alderdi pragmatikoaz ari gara. Gricek (1975) komunikazioa elkarrekin lan egitea eskatzen duen jarduna bezala ikusten du eta arau edo eredu moduko batzuk ere jarri ditu komunikazioak arrakasta izan dezan: behar den guztia esatea baina behar den baino gehiago ez, egia esatea, jardunaren gaira egoki datorrena esatea eta argia izatea. Entzuleek gehienetan uste izaten dute hiztuna arau horiei jarraitzen zaiela eta horren arabera interpretatzen dituzte haren hitzak. Pertsona eskizofrenikoen hizketan erregela horiek ez dira betetzen, edo horietako batzuk behintzat ez. Komunikazioak arrakasta izateko betebeharrak nagusia hitz egiten zaion pertsonaren ezaguera, uste eta asmoak aintzat hartzea da. Era berean, hiztuna izan nahiz entzulea, beharrezkoa da inferentziak egitea besteen ezaguera, uste eta asmoei buruz (Sperber eta Wilson 1986). Komunikazioa hasiko bada, entzuleak hiztunaren komunikatzeko asmoaz jabetu behar du. Era askotan adieraziko du hiztunak komunikatzeko duen asmoa; horien artean, ez-hitzezko seinaleak daude, “seinale erakusleak” esaten zaienak.

Frithen (1992) arabera, hiztunaren seinale erakusleaz jabetzeko gaitasunik ezak esplikatuko litzuke pertsona eskizofrenikoen jokabidearen bi ezaugarri: seinale horiei erantzuten ez badie, eriak gizarte-uzkurtasuna agertuko du; seinale erakusleak sumatzen baditu, berriz, horrelako seinalerik ez dagoenean, orduan eriak usteko du, oker noski, jende askok harremanak izan nahi dituela berarekin, eta horrek esplikatuko luke erreferentzia-eldarnioa. Frithen (1992) iritziz, “pentsamenduaren nahaste formal” batzuek komunikazioaren arloko nahastea adierazten dute, eta hori gertatzeko arrazoia, neurri batean, honako hau da: gaitxoak, hizketan hastean, ez duela kontuan hartzen hizketakideak dakiena.

Hoffmanentzat (1986), pertsona eskizofrenikoen hizketa nahasiak age-rian uzten duen arazo nagusia plangintzan datza. Hizketa eskizofrenikoa

modalak antolatua badago, hori osatzen duten adierazpen asko hizketaren helburu eta asmoekin bat ez datozelako da. Era berean, pentsaera eskizofrenikoa gaizki antolatua badago, plan orokorrean egoki txertatzen ez delako da. Bai Hoffmanen ikuspegian, bai Frithenean, huts egiten duena norberaren ikuskatze edo gainbegiratzea da; horregatik, eta baita adierazpena —edo pentsamendua— eta helburu kognitiboa elkarrekin bat ez etortzeagatik ere, norberarengandik sortutako egintza batzuk “arrotz”tzat jotzen dira (haluzinazioak). Halaber, diskurtsoa ere antolaketarik gabea ageri da, ezin saihestu diren adierazpen “arrotz” horiengatik. Hala bada, gaixo eskizofrenikoak komunikazioan huts egitearen azken kausa honako hau izango litzateke: bere adierazpenak moldatzerakoan, ez duela kontuan hartzen entzuleak zer dakien. Rochester eta Martinen (1979) lanak erakutsia zuen dagoeneko pertsona eskizofrenikoen adierazpenetan kohesio lokarriak eta erreferenteak falta direla. Esan dugu gorago zein den hizkuntza-baliabide horien egiteko nagusia: hiztunak entzulari egitura koherente bat eskaintzea eta aditzera ematea noiz ari den gauza berriak esaten eta noiz dagoeneko esanda dagoen zerbait aipatzen.

Eskizofreniak jota dauden gaixoak —hala uste dute zenbait autorek— edo ez dute entzuleak zer dakien inferitzeko gaitasunik, edo ez dute gaitasun hori erabiltzen. Rutterren (1985) iritzia da eskizofrenia duen pertsonaren arazoa hizketakidearen lekuan jartzeko ezintasunean datzala. Harrow eta Millerrek (1985), aldiz, uste dute gaixo hauen diskurtsoa entzuleak ez dituen ezaguera batzuek gidatzen dutela, partez behinik behin. Goodek (1990) hizketaldian egiten diren hutsak zuzentzeko prozesua hiztunaren eta entzulearen arteko lankidetzaz bezala azaldu du, eta hiztuna behartua dagoela dio, entzulari hizketa ulertzeko behar duen informazioa ematera. Autore horren arabera, itxuraz, eskizofrenia duten batzuk ohartzen dira beren hizketakideak informazio gehiago behar duela, baina ez dira informazio hori emateko gauza. Sperber eta Wilsonen (1986) komunikazioa ulertzeko bi modu bereizten dituzte: deskodetzea eta inferentzia. Adierazpen bat badago deskodetzerik horren egitura sintaktikoan eta hori osatzen duten hitzen esanahian oinarrituz. Horrek perpausaren hitzez hitzeko esanahia emango luke, baina ez luke, nahitaez, hiztunak esan nahi duena adieraziko. Hiztunak egiatan esan nahi duena ulertzeko, beharrezkoa da testuingurua kontuan hartzea eta inferentziak egitea hiztunak dakienari eta dituen asmoei buruz. Askotan, esaten dena eta esan nahi dena ez datoz bat. Gaixo eskizofrenikoentzat bereziki zaila hitzez hitz esaten dena eta esan nahi dena bat ez datozen adierazpenak ulertzeko da (Cutting eta Murphy 1990).

Ikuspegi psikolinguistikoa hartu duten zenbait ikerketaren emaitzek adierazten dutenez, pertsona eskizofrenikoek ez dituzte behar bezala erabiltzen testuak kodetzeko erregela linguistikokoak. Prozedura orokor gisa egoera egituratuetan grabatutako hizketen analisi formala erabiliz, Andreasen eta haren lankideek (1985), Belinchónek (1986, 1988) eta Insúa eta bestek (2001) per-

tsona eskizofrenikoen testuak ezohikoak direla berresten duten datuak lortu dituzte; ezohikoak honako gauza hauetan: mezuen azaleko kohesio-loturen kopuru eta banaketan, proposizioen antolaketa logikoan eta osagai makrotestualen egituraketa eta antolamenduan. Eta, hain zuzen ere, kohesio-loturak, proposizioen antolaketa logikoa eta osagai makrotestualen egituraketa eta antolamendua dira entzuleari hizketa ulertzeko lana gehiena errazten dioten adierazle linguistikoak. Adierazle horiek erabiltzeak erakusten du hiztunak duen gaitasuna hizketakidearen ezaguerak, asmoak eta informazio-beharrak inferitzeko; testu ongi egituratuak, ulergarriak eta komunikazioaren aldetik eraginkorrak moldatzea da gaitasun horren adierazgarri. Hiztunaren gaitasun pragmatikoari dagozkion seinaleak dira horiek (Belinchón 1991, Frith 1992). Crow eta bestek (1995) erakusten dute haurtzaroko komunikazio ahozko eta idatzi urria eskizofreniaren aitzindari bat dela, eta aditzera ematen dute antolaketa gabeko hizketa benetako hizkuntza-urritasun edo -defiziten ondorio izan daitekeela. Dena dela, kontuan hartu behar da psikosia indarrean ez dagoenean sintomak moteldu egiten direla; horregatik, pentsa daiteke hizkuntza-gaitasunaren parte on bat osorik dagoela, baina horra iristea ezinezkoa dela gaixoa egoera psikotikoan dagoenean.

Duela gutxi, beste behin azpimarratu du Chaikak (2000) hizketa antolatu gabea eskizofreniaren patognomonikoa dela, eta, hortaz, nahaste hori agertzen dutenen eritasuna eta hori agertzen ez dutenena ez direla berdinak. Hori esateko, Walsh (1997) eta Crowen (1998, 2000) ideiak hartzen ditu oinarri: lehenengoaren arabera, eskizofrenia hizkuntzaren nahastea delako ideia gero eta gehiago ari da zabaltzen; bigarrenak, berriz, lan askotan adierazi du, eskizofreniak, zein ere den horren jatorria, baduela zerikusirik Homo Sapiens delakoak mintzatzeko gaitasuna lortzearekin. Chaikaren iritziz, hizketa nahasia eta Schneiderren (1975) lehen mailako sintomak beharrezkoak dira eskizofreniaren diagnostikoa egiteko. Eskizofrenia dutenen hizketan jokabide sail bat egongo litzateke eritasun horren patognomoniko edo tipikoak direnak, baina psikosiaren agerraldietan bakarrik gertatuko liriateke; gainerakoan, pertsona horien hizketaren egitura itxuraz normala izan daiteke. Eskizofreniaren patognomiko diren jokabideak aipatu berri dugun lanaren aurrekoetan autoreak seinalatutakoak dira: neologismoak, arrapaladan hitz egitea (gutziz ulertezinak diren hitzak esatea), gaiarekin zerikusirik ez duten asoziazio kateak erabiltzea, diskurtsoaren gaiari ez dagokion erritmoa erabiltzea, hizketa modu berei behin eta berriz eustea (pertseberazioa), syntaxian huts larriak egitea eta hizketa nahasia. Hizketa modu honek adieraziko luke horren oinarrian hizketa-egiturak antolatzeko ezintasuna dagoela maila guztietan. Hizketa nahasia agertzen duten eskizofrenikoek, behin maila horietako batzuetan behin besteetan huts egin dezakete; horrela, huts egin dezakete morfemak eta hitzak sortzerakoan, edo horiek esaldi esanahidunetan elkarrekin lotzerakoan, edo oro har esanahirik gabeko diskurtsoak eratuz. Gutxienez hiru eragile izan ditzake horrek: a) gaixoaren ezintasuna, arreta esku artean duen egitekoan ipintzeko; b) hiztunaren asmoe-

tarako egokiak diren hitzak eta formak aukeratzeko ardura duen funtzio betearazleak kale egitea; eta c) oroitzapenak kodetzen dituzten esaldietara ausaz sarzea, esaldi horiek testuinguruari egokitzen ez bazaizkio ere (Chaika 2000).

a. Gaixoaren ezintasuna, arreta esku artean duen egitekoan ipintzeko

Badirudi eskizofreniak jota daudenak bereziki sentikorrak direla arreta eskatzen duten egitekoentzat; nolana ere, arretaren nahasteek esanahi etiologikoa duten ala asaldua egoerarekin batera agertzen diren, oso eztabaidatua den auzia da. Eskizofrenikoen arreta-arazoak hiru arlotan jarri izan dira: oharkabegarritasuna edo arreta galtzeko joera, arreta jarraitua eta arreta hautatzailea. Oharkabegarritasuna honako honi dagokio: egiteko kognitibo bat gauzatu behar denean, zerikusirik ez duten estimulu pila bat tartean sartzeagatik gertatzen den narriadurari. Arreta galtzea eragiten duten estimuluaren aurrean pertsona eskizofrenikoak bereziki ahulak direla agerian utzi dute zenbait lanek. Hori bat etorriko litzateke, prozesatzeko gaitasunari eskatzen zaiona gehitu ahala, informazioa prozesatzerakoan hutsuneak nabarmen agertzen direlako hipotesiarekin (Neale eta Oltmanns 1980, Ruiz Vargas 1987). Arreta jarraitu edo ernetasunari dagokionez, asko dira pertsona eskizofrenikoek arreta mota hori eskatzen duten lanetan huts egiten dutela frogatu duten lanak; huts egite hori, gainera, hain da handia, non planteatu ere egin baita arreta-urritasuna dela eskizofreniaren markarik bereizgarriena (Erlenmeyer-Kimling eta Cornblatt 1978, Obiols eta Padró 1991, Franke *et al.* 1994). Duela gutxi, Vazquezek (1997) Gauzatze edo Performantzia Jarraituaren Testak (CPT) zantzu edo adierazle gisa izan dezakeen egonkortasunaz hitz egin du eta, horrela, eskizofrenian arreta jarraituaren hutsegiteak gorabehera handikoak direlako hipotesia berri du. Arreta hautatzaileari dagokionez, bi hipotesi azaldu dira: iragazki akastunarena bata eta hutsegitea erantzunak hautatzerakoan jartzen duena bestea. Froga erabakigarriarik ez dago lehenengo hipotesiari dagokionez; esaten dena da, prozesatze-sisteman mailaz igo eta sistema horren gaitasun-eskakizunak gehitu ahala, pertsona eskizofrenikoen prozesatze hautatzailea hondatuz doala. Ikerketa asko bat datoz honetan: pertsona eskizofrenikoengan gertatzen den arretaren gutxitzea ez da, dirudienez, informazioa prozesatzeko aurreneko mailetan gertatzen, azkenekoetan baizik, eta egitekoak, egia esan, maila horietan eskatzen du ahaleginik handiena (Hemsley eta Richardson 1980, Duncan-Johnson eta Donchin 1982, Duncan 1988, Ruiz Vargas 1987).

b. Hitzak eta formak aukeratzeko ardura duen funtzio betearazlearen porrota

Hizketa gertatuko bada, funtzio betearazle edo eragile bat beharrezko da, hotsak eta hitzak berreskuratu eta perpausetan antolatzeko. Barne-kontrol

edo autogainbegiratzeko bat ere beharrezko da, funtzio betearazleari item okerrak berreskuratzea edo itemak modu desegokian eratzeko eragozteko. Funtzio betearazlea kontrolatzeko dagoen barne-sistemak erabakitzen du esan aurretik berreskuratzen dena edo eraikitzen dena egokia den ala ez (Chaika 1995). Frithen (1992) ustez, eskizofrenian norbera ikuskatzeko sistemak huts egingo luke; horren ondorioz, pertsona eskizofrenikoek ezin izango lituzkete ikuskatu beren jokabideak, hitzezkoak barne, jokabide horiek gauzatu arte, hau da, ikuskatzea periferiako feedbackean oinarrituko litzateke. Beren asmoen jakitun egoteko ezintasun horrek esplikatuko lituzke entzunezko haluzinazioak eta pentsamenduaren edukiaren nahaste batzuk (pentsamenduetan lapurtzea, pentsamenduetan sartzea eta abar). Frithen arabera, besteen asmoak ikuskatzeko sistemak ere huts egiten du; horrela azal daitezke erreferentziako eldarnioak (gaixoak uste duenean askok berarekin harremanetan jarri nahi dutela, oker erantzunez berak erakusletzat hartzen dituen seinaleei) eta koherentziarik gabeko hizketa mota batzuk (hain zuzen ere, hizketakideek ulertzeko garrantzizkoa den informazioa, erreferentziakoa bereziki, ez baitute ematen). Garunean min hartu duten gaixoen hitzezko jokabideari buruzko ikerketetatik (Gazzaniga 1992) eta pertsona normalen *lapsus linguae* direlakoetatik atera diren datuek bide ematen dute honako hau pentsatzeko: badela segur aski funtzio betearazle bat, oharmen mailaren azpitik dagoena eta hizkuntza-materiala hautatzeaz arduratzen dena, eta barne-kontrol bati dagokiola horren egokitasuna zaintzea adierazpena gauzatu aurretik. Baina hori, egia esan, aieru hutsa da oraingoz, une honetan dakigunak ez baitigu bestetarako aukerarik ematen. Dena dela, sistema betearazle hori eta horren barne-kontrola nolakoak diren ez badakigu ere, horien disfuntzioak pertsona eskizofrenikoengan ikusten den ondorio bera izango luke: hizketaren maila guztietan materiala oker eraikitzea, oker eraikitze hori iraunkorra eta sistematikoa ez bada ere (Chaika 2000).

c. Oroitzapenak kodetzen dituzten esaldietara ausaz sartzea, esaldi horiek testuinguruari egokitzen ez bazaizkio ere

Pertsona normalen hizketan ere hutsegiteak aurkitzen ditugu. Eskizofrenian gertatzen den hizketaren nahastearen antzekoenak “hizkuntza lapsus” edo *lapsus linguae* deritzenak dira. Ikertzaileek frogatu dutenez, hutsegite horiek eragin daitezke laborategian, parte-hartzaile esperimentalei, zerbait ez hitz egiten ari diren bitartean, arreta galarazten dieten hitzak edo gauzakiak, edo marrazkiak, erakutsiz. Oharkabearazteko item hauek subjektuen hizketan sartuko lirake, “hizkuntza lapsusen” gisako hutsegiteak eraginez. Autore batzuek diote eskizofrenia duten pertsonen hizkuntza-desbiderapen asko gertatu, diskurtsoaren foku edo erdigunean harira ez datozen oroitzapenak sartzen direlako gertatzen direla, eta pertsona horiek ezin dituztela kendu oroitzapen horiek (Chaika 2000).

Chafek (1994, 1999) hizketa normalean gertatzen dena honela azaltzen du: hizketaren fokuan agertzen diren itemek hiztunak arreta ipintzen duen fokuarekin zerikusia duten oroitzapenak kitzikatzen dituzte, orduan oroitzapen horiek iritsi-errazak dira eta behar izanez gero aise berreskuratzen dira. Hizketan, arreta-fokuak azkar aldatzen dira hitz egiten ari garen bitartean eta aldaketa horiek erregela batzuei jarraitzen diete. Chafek hiztunaren adimeanean dagoen informazioa hiru egoeratan egon daitekeela dio: aktibo, ez-aktibo eta erdi aktibo. Egoera horietako bakoitzak kostu kognitibo ezberdina du gauzak hitzez adierazteko orduan. Horrela, ideia jakin bat hiru egoera horietako edozeinetan egon daiteke, edozein mementotan, hiztunaren buruan: erabat aktibo, erdi aktibo edo erabat ez-aktibo. Ikusmenaren analogiaz baliatuz, ideia aktiboak oharmenaren (kontzientziaren) aurrez aurre egongo lirateke, fobean bezala; ideia erdi aktiboak, aldiz, periferiako ikusmenaren antzekoak dira. Ideia ez-aktiboak ikus-eremutik kanpo dauden materialen antzekoak dira. Ideia ez-aktibo batzuk iraupen handiko oroimenean daude; beste batzuk, berriz, une jakin batean aktibatzen dira lehenengo aldiz. Pentsamenduaren jarioan kostu kognitibo handia izango luke alde aurretik ez-aktibo zegoen ideia bat aktibatu eta hitzez adierazteak. Horrelako ideia bati “informazio berria” esaten zaio askotan. Continuumaren beste muturrean, aktibo egon den eta oraindik hala dagoela hitzez adierazi den ideia “informazio jakina” deitzen da. Bi mutur horien artean, orain arte erdi aktibo zegoen ideia aktibatzea eta hitzez adieraztea dago; horri “informazio eskuragarria” esaten zaio. Ideia mota hauek (emanak, eskuragarriak eta berriak) bakoitzak bere erara eragiten diote hizketari eta, alderantziz, hizketa aztertuz inferentziak egin ditzakegu hiru egoera kognitibo horiei buruz (Chafe 1994, 1999).

Aktibatzearen kostuak, esan den modu horretan, badu zerikusirik, bai hiztunaren buruan, bai entzulearenean, informazioa prozesatzearekin. Hala ere, hizkuntza sortzen duena hiztuna denez, balegoke ondorioztatzerik hor inplikaturik dagoena hiztunaren gogamena dela: hiztunak etengabe kontuan hartzen badu zein den informazioaren egoera entzulearen buruan, orduan gauzak, hizkuntzari dagokionez, ongi doaz. Entzulearen gogamena kontuan hartzen ez duen hiztunak gaizki-ultertuak sortzen ditu. Hizkuntzak bere-berea duen zeregina gauzatzen duenean, ideia jakina hiztunarentzat erabat aktibo dagoen ideia da, baina, aldi berean, hiztunak dauka beretzat ideia hori entzulearen buruan ere erabat aktibo dagoela. Era berean, ideia eskuragarri bat hiztunarentzat alde aurretik erdi aktibo dagoen ideia da, baina bada baita hiztunak entzulearentzat erdi aktibo dagoela uste duen ideia ere. Azkenik, ideia berri bat lehenago ez-aktibo zegoen eta orain hiztunak aktibatu duen ideia da eta, horregatik, kostu kognitiborik handiena dakarrena da; baina hiztunak onartzen du beharrezkoa dela prozesu hori bera gertatzea entzulearen buruan. Normalean, jendea ohartzen da bere arreta-gunean sartzen diren ideia edo pentsamenduez eta, orduan, bi gauza hauetako bat egin dezake: edo haiek aipatu eta beste gai bat sartu hizketan, edo haiek alde batera utzi

eta hitz egiten ari zen gaiari eutsi. Eskizofrenia duen pertsonak ezin izango luke egin inhibizio hautatzaile hori. Esaten ari denarekin nolabaiteko lotura duten hitzak (hoskide direlako, sinonimoak direlako, hots berarekin hasten direlako, gertakarien oroitzapenak direlako eta abar) diskurtsoaren fokuan agertuko lirатеke eta adierazi egingo lirатеke berehala, zer esaten den eta zer ez ikuskatu eta kontrolatzeko gaitasun falta horrengatik (Chaika 2000).

8. Ondorioak

Ikuspegi klinikoak, ikusi dugunez, hizkuntza pentsamenduaren adierazpidetzat hartzeko joera dauka. Ikuspegi hori hartu duten klinikoek, modu guztiz koherentean, eskizofreniadunen hizketan gertatzen diren aldaketa eta nahasteak “pentsamenduaren nahaste formalaren islatzat” hartu dituzte. XX. mendearen lehenengo erdian, paradigma behavioristaren nagusitasunak bazterrerara utzi zuen pentsamenduaren ikerketa, hori behatzea eta neurtzea ezinezkoa zela argudiatuz; hizkuntza, berriz, beste edozein jokabide bezala azter zitekeen, beste jokabideak aztertzeke erabiltzen zen metodologia berbera erabiliz. Baina, 60ko hamarkadan paradigma kognitiboa agertzean, gogamena aztertzeari ekin zitzaion berriz ere; oraingoan, ordea, gogamenari informazioa prozesatzen duen sistema bat den aldetik begiratu. Ikuspegi hori zela gidari, hizkuntzaren prozesaketaren ereduak sortzen eta ikerketak (ikerketa psikolinguistikoak) egiten hasi ziren, bai pertsona normalengan, eta bai eskizofreniadunengan ere.

Diskurtso normala, diskurtso eskizofrenikoa ez bezala, diskurtso koherentea edo ulergarria delako ideiarekin abiatuz, lan asko egin dira hizkuntza normalaren eta hizkuntza desbideratuaren “komunikazio eraginkortasuna” estudiatzeko. Lan horiek arreta ipini dute, jendeak, mezuak antolatzerakoan, erabiltzen duen ezagutza motan, linguistikoa nahiz ez-linguistikoa izan daitekeen ezagutzan. Hitzunak, hitz egiten ari den bitartean, hizketakideaz duen informazioa gogoan duela suposatzen dute aipatu lanek; horrela, informazio hori landu eta erabiltzerakoan huts egiteak komunikazioaren helburuetarako eraginkorrak ez diren diskurtsoak sortzea ekarriko luke. Bestela esateko, komunikazioak eskizofrenian porrot egiten badu, horren arrazoi nagusia honako hau izango litzateke: eskizofrenia duenak, bere hizketa moldatzerakoan, ezin duela kontuan hartu bere entzuleak zer dakien eta zer ez. Ikuspegi hori erabiliz, honako aurkikuntza hauek egin dira: pertsona eskizofrenikoen diskurtsoak auresatea zaila da; gaixo hauek moldatzen dituzten diskurtsoek erreferente anbiguoak dituzte, edo hizketakideak behartzen dituzte hurbileko testuinguruan (hizkuntzazko zein hizkuntzaz kanpokoan) iritsi-erraza ez den informazioa berreskuratzea, haien buruan aktibo ez da goen informazioa alegia; eta, azkenik, diskurtso ezohikoak ekoizten dituzte. Diskurtsoak ezohikoak dira honako puntu hauetan: mezuen azaleko kohesio-loturen kopuru eta banaketan, proposizioen egituratzeko logikoan eta horien

osagai makrotestuaren egituratze eta antolamenduan. Horiek dira hizketa ulertzeko lana gehiena erazten duten adierazgailu linguistikoak; bestalde, prozesaketaren “goi”-mailen zati dira eta autoreak bat datoz, eskizofrenian hizkuntzaren prozesaketaren maila horiek daudela narriaturik. Guztiarekin ere, gaur egungo frogetan oinarrituz, hertsia-hertsian hartuta linguistikoak eta/edo automatikoak diren prozesaketa-mailetan urritasun edo hutsunerik ez dagoenik ezin da esan.

Eskizofreniak jota dauden gaixoez hizketaren egiturak antolatzeke ezintasuna erakusten dute maila guztietan. Kontua, ordea, hori zergatik gertatzen den azaltzea da. Hainbat hipotesi daude: horren kausa izan daiteke subjektuak esku artean duen egitekoan arreta ipintzeko duen ezintasuna, edo funtzio betearazleak huts egitea, edo baita bere arreta-gunean sartzen diren ideia edo pentsamendu berriak baztertzeko ezgaitasuna. Eskizofrenian hertsia-hertsian hartuta hizkuntzarenak diren nahasteak, informazioaren prozesaketa kontrolatuaren hutsegiteak esplikatuz ezin dituenak, daudelako hipotesia behin betiko baztertzeko, frogaren enpiriko gehiago beharko litzatekeela uste dugu; hobeki ezagutu beharko bailitzateke pertsona eskizofrenikoek nola gauzatzen dituzten perpausen kodetze morfosintaktikoan parte hartzen duten prozesuak. Froga horiek, bestalde, hizkuntza prozesatzeko aurreneko faseak ikertzeko, eta horretarako bakarrik, pentsatuak dauden egitekoak erabiliz lortu beharko lirateke. Era berean, Psikologia Kognitiboak diskurtso naturalaren ekoizpenaren eredu egokirik, hau da, jokabide horren hasierako faseak gauzatzeko martxan jartzen diren jarduera konplexuak argi eta garbi eta modu sinplean esplikatuko dituen eredurik, ez daukan bitartean, ezinezkoa izango da egoki azaltzea hizkuntza normalaren eta/edo patologikoaren ekoizpena.

Erreferentziak

- ALPERT, M. 1985. “The signs and symptoms of schizophrenia”. *Comprehensive Psychiatry* 26, 2: 103-12.
- ARIETI, S. 1955. *Interpretation of schizophrenia*. New York: Brunner.
- ANDERSON, A. H., A. CLARK eta J. MULLIN. 1991. “Introducing information in dialogues: Forms of introduction chosen by young speakers and the responses elicited from young listeners”. *Journal of Child Language* 18: 663-87.
- ANDREASEN, N. C. 1979. “Thought, language and communication disorders. Clinical assessment, definition of terms and evaluation of their reliability”. *Archives of General Psychiatry* 36: 1315-23.
- ANDREASEN, N. C., R. E. HOFFMAN eta W. M. GROVE. 1985. “Mapping abnormalities in language and cognition”. In A. ALPERT (arg.), *Controversies in schizophrenia: changes and constancies*. New York: Guilford Press, 199-226.
- BELINCHÓN, M. 1986. *Producción verbal y esquizofrenia: Una aproximación psicolingüística al estudio de las alteraciones del discurso*. Doktoretza-tesi argitaragabea.
- BELINCHÓN, M. 1987. “Lenguaje”. In J. M. RUIZ-VARGAS (arg.), *Esquizofrenia: Un enfoque cognitivo*. Madril: Alianza, 209-58.

- BELINCHÓN, M. 1988. "Hacia una caracterización empírica del lenguaje esquizofrénico". *Estudios de Psicología* 33-34: 157-89.
- BELINCHÓN, M. 1991. "Comunicación y lenguaje en la esquizofrenia". In C. CASTILLA DEL PINO eta J. M. RUIZ VARGAS (arg.), *Aspectos cognitivos de la esquizofrenia*. Madril: Trotta, 99-122.
- BELINCHÓN, M., J. M. IGOA eta A. RIVIÈRE. 1992. *Psicología del lenguaje. Investigación y teoría*. Madril: Trotta.
- BENSON, D. F. 1973. "Psychiatric aspects of aphasia". *British Journal of Psychiatry* 123: 555-56.
- BLEULER, E. 1960 [1911]. *Demencia precoz o el grupo de las esquizofrenias*. Buenos Aires: Horme.
- BLOOMFIELD, L. 1933. *Language*. New York: Henry Holt.
- BROWN, R. 1973. "Schizophrenia, language and reality". *American Psychologist* 28: 395-403.
- BUTTERWORTH, B. 1985. "Jargon aphasia: Processes and strategies". In S. NEWMAN eta R. EPSTEIN (arg.), *Current perspectives in dysphasia*. New York: Churchill Livingstone, 61-96.
- CAMERON, N. 1938a. "A study of thinking in senile deterioration and communication in schizophrenics". *American Journal of Psychology* 51: 650-65.
- CAMERON, N. 1938b. "Reasoning, regression and communication in schizophrenia". *Psychological Monographs*, 221 (ale osoa).
- CAMERON, N. 1944. "Experimental analysis of schizophrenic thinking". In J. S. KASANIN (arg.), *Language and thought in schizophrenia*. Berkeley: University of California Press, 50-64.
- CANTOR-GRAAE, E., S. WARKENTIN eta A. NILSSON. 1995. "Neuropsychological assesment of schizophrenic patients during a psychotic episode: persistent cognitive deficit?". *Acta Psychiatrica Scandinavica* 91: 283-88.
- CHAFE, W. 1994. *Discourse, consciousness, and time*. Chicago: University of Chicago Press.
- CHAFE, W. 1999. "Language and the flow of thought". In M. TOMASELLO (arg.), *The new psychology of language*. Mahwah, New Jersey: Lawrence Erlbaum Associates, 87-104.
- CHAIKA, E. 1974. "A linguistic looks at 'Schizophrenic' language". *Brain and Language* 1: 257-76.
- CHAIKA, E. 1981. "How shall a discourse be understood?". *Discourse Processes* 4: 71-88.
- CHAIKA, E. 1982. "A unified explanation for the diverse structural deviations reported for adult schizophrenics with disrupted speech". *Journal of Communication Disorders* 15: 167-89.
- CHAIKA, E. 1990. *Understanding psychotic speech: Beyond Freud and Chomsky*. Springfield, Illinois: Charles C. Thomas.
- CHAIKA, E. 1995. "On analysing schizophrenic speech: what model should we use?". In A. SIMS (arg.), *Speech and language disorders in psychiatry*. London: Gaskell, 47-56.
- CHAIKA, E. 2000. *Linguistics, pragmatics and psychotherapy*. London: Whurr Publishers.
- CHAPMAN, J. L. 1960. "Confusion of figural and literal usages of words by schizophrenics and brain damaged patientes". *Journal of Abnormal and Social Psychology* 60: 412-16.
- CHAPMAN, J. L. eta CHAPMAN, J. P. 1973. *Disorder thought in schizophrenia*. Englewood Clifs, NJ: Prentice-Hall.
- CHAPMAN, J. L., CHAPMAN, J. P. eta MILLER, G. A. 1964. "A theory of verbal behavior in schizophrenia". In B. MAHER (arg.), *Progress in experimental personality research (Vol. 1)*. New York: Academic Press, 135-67.
- COHEN, B. D. 1976. "Referent communication in schizophrenia: The perseverative-chaining model. In K. SALZINGER (arg.), *Psychology in progress: An international report*. 270. bol. New York: Annals of the New York Academic of Sciences, 124-40.

- CONDRAV, R., D. P. VAN KAMMEN, S. R. STEINHAEUER, A. KASPAREK eta J. K. YAO. 1995. "Language comprehension in schizophrenia: trait or state indicator?". *Biological Psychiatry* 38 (5): 287-96.
- CROW, T. 1998. "Nuclear symptoms as a window on the relationship between thought and speech". *British Journal of Psychiatry* 173: 303-9.
- CROW, T. 2000. "La esquizofrenia como el precio que paga el *Homo sapiens* por el lenguaje: una solución a la paradoja central en el origen de la especie". In J. SANJUÁN (arg.), *Evolución cerebral y psicopatología*. Madril: Triacastela, 195-226.
- CROW, T. J., D. J. DONE eta A. SACKER. 1995. "Childhood precursors of psychosis as clues to its evolutionary origins". *European Archives of Psychiatry* 245-2: 61-69.
- CUTTING, J. eta D. MURPHY. 1990. "Preference for denotative as opposed to connotative meanings in schizophrenics". *Brain and Language* 39: 459-68.
- DOCHERTY, N. M. eta S. W. GORDINIER. 1999. "Immediate memory, attention and communication disturbances in schizophrenia patients and their relatives". *Psychological Medicine* 29-1: 189-97.
- DOCHERTY, N. M., I. M. EVANS, W. H. SLEDGE, J. P. SEIBYL eta J. H. KRYSAL. 1994. "Affective reactivity of language in schizophrenia". *Journal of Nervous and Mental Disease* 182-2: 98-102.
- DOCHERTY, N. M., M. SCHMUR eta P. D. HARVEY. 1988. "Reference performance and positive and negative thought disorder: A follow-up study of manics and schizophrenics". *Journal of Abnormal Psychology* 97: 437-42.
- DOCHERTY, N. M., J. P. RHIBEWINE, R. P. LABHART eta S. W. GORDINIER. 1998. "Communication disturbances and family psychiatric history in parents of schizophrenic patients". *Journal of Nervous and Mental Disease* 186 (12): 761-68.
- DONE, J. eta C. D. FRITH. 1984. "The effect of context during word perception in schizophrenic patients". *Brain and Language* 23: 318-36.
- DUNCAN, C. 1988. "Even-related brain potentials: A window of information processing in schizophrenia". *Schizophrenia Bulletin* 14: 199-203.
- DUNCAN-JOHNSON, C. eta E. DONCHIN. 1982. "The P300 component of the event related brain potential as an index of information processing". *Biological Psychology* 14: 1-52.
- ERLENMEYER-KIMLING, L. eta B. CORNBLATT. 1978. "Attentional measures in a study of children at high risk for schizophrenia". In L. C. WYNNE eta R. L. MATHYSE (arg.), *The nature of schizophrenia: New approaches to research and treatment*. New York: Wiley, 93-98.
- FRANKE, P., W. MAIER, J. HARDT, C. HAIN eta B. A. CORNBLATT. 1994. "Attentional abilities and measures of schizotypy: Their variation and covariation in schizophrenic patients, their siblings, and normal control subjects". *Psychiatry Research* 54-3: 259-72.
- FRITH, C. D. 1992. *The cognitive neuropsychology of schizophrenia*. London: Psychology Press.
- FRITH, C. D. eta H. A. ALLEN. 1988. "Language disorders in schizophrenia and their implications for neuropsychology". In P. BEBBINGTON eta P. MCGUFFIN (arg.), *Schizophrenia: The major issues*. Oxford: Heinemann, 172-86.
- FROMKIN, V. 1975. "A linguistic look at 'A linguistic looks at 'Schizophrenic' language'". *Brain and Language* 2: 498-503.
- GAZZANIGA, M. 1992. *Nature's mind: The biological roots of thinking, emotions, sexuality, language, and intelligence*. New York: Basic Books.
- GERSON, S. N., D. F. BENSON eta S. H. FRAZIER. 1977. "Diagnosis: Schizophrenia vs. posterior aphasia". *American Journal of Psychiatry* 134: 966-69.

- GERVER, D. 1967. "Linguistic rules and the perception and recall of speech by schizophrenic patients". *British Journal of Social and Clinical Psychology* 6: 204-11.
- GLUCKSBERG, S., R. M. KRAUSS eta R. WEISBERG. 1966. "Referential communication in nursery school children: Method and some preliminary findings". *Journal of Experimental Child Psychology* 3: 333-42.
- GOOD, D. 1990. "Repair and cooperation in conversation". In P. LUFF, N. GILBERT eta D. FROHLICH (arg.), *Computers and conversation*. London: Academic Press, 133-50.
- GOTTSCHALK, L. A., G. C. GLESEER, E. G. MAGLIOCO eta T. L. D'ZMURA. 1961. "Further studies on the speech patterns of schizophrenic patients: Measuring inter-individual differences in relative degree of personal disorganization and social alienation". *Journal of Nervous and Mental Disease* 132: 101-13.
- GRICE, H. P. 1975. "Logic and conversation". In R. COLE eta J. MORGAN (arg.), *Syntax and Semantics (3. bol.)*, *Speech acts*. New York: Academic Press, 41-58.
- GRIJALVO, J. 1991. *Evolución clínica de distintos subtipos de esquizofrenia con especial referencia al lenguaje*. Doktore-tesi argitaragabea.
- HALLIDAY, M. A. eta R. HASAN. 1976. *Cohesion in spoken and written English*. London: Longmans.
- HARVEY, P. D. 1983. "Speech competence in maniac and schizophrenic psychoses: The association between clinically rated thought disorder and cohesion and reference performance". *Journal of Abnormal Psychology* 92: 368-77.
- HARVEY, P. D., S. WEINTRAUB eta J. M. NEALE. 1982. "Speech competence of children vulnerable to psychopathology". *Journal of Abnormal Child Psychology* 10: 373-88.
- HARROW, M. eta J. G. MILLER. 1985. "Schizophrenic thought disorders and impaired perspective". *Journal of Abnormal Psychology* 89: 717-27.
- HEMSLEY, D. eta P. RICHARDSON. 1980. "Shadowing by context in schizophrenia". *Journal of Nervous and Mental Diseases* 168: 141-45.
- HOFFMAN, R. E. 1986. "Verbal hallucinations and language production processes in schizophrenia". *Behavioral and Brain Sciences* 9: 503-48.
- INSUA, P., J. GRIJALVO eta P. HUIZI. 2001. "Alteraciones del lenguaje en la esquizofrenia: síntomas clínicos y medidas psicolingüísticas". *Revista de la Asociación Española de Neuropsiquiatría XXI*, 78: 27-50.
- JOHNSON-LAIRD, P. N. 1983. *Mental models: Toward a cognitive science of language, inference and consciousness*. Cambridge: Cambridge University Press.
- JOHNSON-LAIRD, P. N. 1993. *Human and machine thinking*. Hillsdale, N. J.: Lawrence Erlbaum Associates.
- JOHNSON-LAIRD, P. N. eta R. M. BYRNE. 1991. *Deduction*. Hillsdale, N. J.: LEA.
- KRAEPELIN, E. 1971 [1919]. *Dementia praecox and paraphrenia*. New York: Robert E. Krieger Publish. Co. Inc.
- LECOURS, A. R. eta H. VANIER-CLEMENT. 1976. "Schizophasia and jargonaphasia: A comparative description with comments on Chaika's and Fromkin's respective looks at 'schizophrenic' language". *Brain and Language* 3: 516-65.
- LIEBERMAN J. A. 1995. "Signs and symptoms; what can they tell us about the clinical course and pathophysiologic processes of schizophrenia?". *Archives of General Psychiatry* 52: 361-63.
- MAHER, B. A. 1966. *Principles of psychopathology*. New York: Mc-Graw Hill.
- MILLER, B. 1984. "Semantic misinterpretation of ambiguous communications in schizophrenia". *Archives of General Psychiatry* 30: 435-40.
- MILLER, G. A. eta S. ISARD. 1963. "Some perceptual consequences of linguistic rules". *Journal of Verbal Learning and Verbal Behavior* 3: 217-28.

- McGHIE, A. 1970. "Attention and perception in schizophrenia". In B. A. MAHER (arg.), *Progress in experimental personality research (Vol. 5)*. New York: Academic Press, 1-35.
- McGRATH, J. 1991. "Ordering thoughts and thought disorder". *British Journal of Psychiatry* 158: 307-16.
- MORICE, R. D. eta J. C. L. INGRAM. 1982. "Language analysis in schizophrenia: Diagnostic implications". *Australian and New Zealand Journal of Psychiatry* 16: 11-21.
- MOYA, J. 1998. "Psicosis única y trastornos del lenguaje". *Revista de la Asociación Española de Neuropsiquiatría XVIII*, 66: 219-34.
- NEALE, J. M. eta T. F. OLTMANN. 1980. *Schizophrenia*. New York, NY: Wiley.
- OBOLS, J. E. eta F. PADRÓ. 1991. "Aspectos generales y técnicos de un instrumento —el CPT-IT— para la evaluación de la atención sostenida en psicopatología". *Clínica y Salud* 2-2: 207-12.
- PICK, A. 1973 [1913]. "Aphasia". In J. W. BROWN (arg.), *Aphasia*. Springfield, Illinois: Charles C. Thomas.
- RIEBER, R. W. eta H. VETTER. 1994. "The Problem of language and thought in schizophrenia: A review". *Journal of Psycholinguistic Research* 23: 149-95.
- RIEBER, R. W. eta H. VETTER. 1995. "Language behavior in schizophrenia". In R. W. RIEBER eta H. J. VETTER (arg.), *The psychopathology of language and cognition*. New York: Plenum Press, 103-34.
- ROCHESTER, S. 1980. "Thought disorder and language use in schizophrenia". In R. W. RIEBER (arg.), *Applied psycholinguistic and mental health*. New York: Plenum Press, 11-68.
- ROCHESTER, S. eta J. R. MARTIN. 1979. *Crazy talk: A study of the discourse of schizophrenic speakers*. New York: Plenum Press.
- RUIZ VARGAS, J. M. 1987. *Esquizofrenia. Un enfoque cognitivo*. Barcelona: Paidós.
- RUTTER, D. R. 1985. "Language in schizophrenia: the structure of monologues and conversations". *British Journal of Psychiatry* 146: 399-404.
- SCHNEIDER, K. 1975. *Patopsicología clínica*. Madrid: Paz Montalvo.
- SPERBER, D. eta D. WILSON. 1986. *Relevance: communication and cognition*. Oxford: Blackwell.
- VAZQUEZ, C. 1997. "Procesamiento de la información y esquizofrenia". "Seminario sobre Esquizofrenia" delakoan aurkeztutako komunikazioa. Asociación Asturiana de Neuropsiquiatría y Salud Mental (AEN).
- VON DOMARUS, E. 1944. "The specific law of logic in schizophrenia". In J. S. KASANIN (arg.), *Language and thought in schizophrenia*. Berkeley: University of California Press, 104-14.
- WALSH, I. 1997. "Conversational skills and schizophrenia: an exploration". In J. FRANCE eta N. MUIR (arg.), *Communication and the mentally ill patient*. London: Jessica Kingsley, 98-116.